

5. Kanalak

Lehen esan bezala, gure enpresak eskaitzen duen zerbitzua herri guztirako zuzenduta dago. Dakizueenez, Tolosan dauden denda guztien online esku-hartzea eskaitzen dugu aplikazio baten bidez. Hori dela eta gure enpresa bereziki online komunikatuko da. Gure zerbitzua besteengana helarazteko kanalak oso garantzitsuak dira, hauek modu zuzuenean bezeroei eskaintzeko.

Gure bezeroengan iristeko, guk sotutako Tolosa&Co aplikazio bera erabiliko dugu. Honek abantaila handia dakar, guk kontrolatzen dugulako gure enpresak eman nahi duen irudia. Bertan anuntzioak eta berritasunak ipiniko ditugu, bezeroei informazioa emanez.

Hortaz aparte, sare sozialak erabiliko ditugu. Geroz eta jende gehiago erabiltzen ditueenez, modu aproposa iruditzen zaigu. Instagram, Facebook eta horrelako aplikazio ezagunak erabiltzea. Bertan ere anuntzioak eta denborarekin sortzen diren gauza berria zintzilikatuko ditugu.

Aplikazioekin, web orri edo horrelakoekin ibiltzen ez den jendearekin edo oso ondo erabiltzen ez dakien jendearentzako, gure arreta-zenbakia ere emango dugu, sor daitekeen edozein zalantza argitzeko. Gainera, Tolosako Udaletxean informazioa ere aurkituko lukete.